



txi kitto!



**Zaudete lasai!
Zuen etxeetara
ailegatuko naiz-eta!**



Euskara Elkartea

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Malen Jainaga

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



- Zerbitzu sekretuaren egoitza al da?
- Barka, baina ezin dizut esan.



Maisuak Jaimitori:

- Zer da kanibal bat?
- Ez dakit.
- Maisuak, errazteko asmoz, galdetzen dio:
- Zure gurasoak jaten badituzu, zer zara?
- Umezurtza!



Kanibal bat hegazkinean doa eta esaten dio azafatak:

- Oraintxe ekarriko dizut menua.
- Eta erantzuten dio kanibalak:
- Ez, nahiago dut bidaiarien zerrenda ikustea.



Gizon bat harategira doa eta galdetzen dio saltzaileari:

- Baduzu gibelik?
- Ez.
- Eta giltzurrunik?
- Ez.
- Eta garunik?
- Ez, hori ere ez.
- Baina zer nolako gizona zara zu?



Ume batek amari:

- Ama, zergatik gordetzen duzu pijama burkoaren azpian?
- Maitea ba... Ez zimurtzeko.
- Orduan zergatik ez duzu aitxitxa ere sartzen?



Ingeles bat, frantses bat eta euskaldun bat elkartzen dira.

Orduan, ingelesak dio:

- Nik Everestera igo, paratxutean jaitsi eta erortzean ipurditik sartzen dut mendia.

Eta frantsesak:

- Ba ni Eiffel dorretik bota eta ipurditik sartzen dut.

Orduan euskaldunak:

- Ba nik baserri atzean 1,50 kg-ko asuna daukat; ea nork sartzen duen hori ipurditik.



Ume batek amari:
- Ama! Ama! Eskolan "Ranbo" deitzen didate.
- Lasai, seme, zuzendariarekin hitz egingo dut.
- Ez, ez, ama, lasai, hori nire misioa da!



Zoroetxe batean urtero froga bat egiten zen, eta paretean ate bat margotzea zen froga. Eguna heldu zenean, denak joan ziren atera, bat izan ezik.

Orduan, medikuak esan zuen: "Hau sendatuta dago".

Zoro batek, bestetik, galdetu zion atera joan ez zenari:

- Zergatik ez zara atera joan?
- Nik daukadalako giltza.



Farola baten azpian mozkor bat zegoen

Aneri ohiuka deitzen. Eta handik igarotzen ari zen pertsona batek galdetu zion:

- Zer egiten ari zara?
- Aneri deika.
- Ba ez du ematen inor dagoenik.
- Bai, argia dago.



Josetxo, ze zorionsuak ginen duela 15 urte!


- Duela 15 urte? Baina duela 15 urte ez genuen elkar ezagutzen eta!


- Horrexegatik ba!






PUNTUAK BATZEN






LABIRINTO




PUZZLEA



Denborapasak




4 desberdintasun




8 desberdintasun






LABIRINTOA



Zenbat triangelu daude?





ni bai artista

Apaingarriak latak zabaltzekoekin

Edari freskagarrien latekin Gabonetako izar originalak egin ditzakegu.



Nola egin:

- Zirrindolak plastikozko zirkuluaren inguruan jarri eta itsatsi.
- Itsasgarria lehortu aurretik, brillantina bota.
- Erdigunean kolore biziko karamelo borobila jarri.

MATERIALA:

- Latak zabaltzeko zirrindolak
- Plastikozko zirkuluak
- Koloretako gozokiak
- Itsasgarri beroa
- Purpurina



? Zuk *galdetu*,
guk *erantzun*

Zenbat pisatzen du Lurrak?

Estimazioen arabera, 6.000.000.000.000.000.000.000 kg-ko pisua du Lurrak (6×1.024); baina galdera horrek badu trikimailu bat. Izan ere, teoriarik, Lurrak ez du pisurik, gorputzek grabitate indarraren arabera pisua baitute, Lurrak berak gorputz bakoitzari eragiten dion grabitazio eremuaren intentsitatearen arabera: hortaz, Lurrak berak ez luke pisurik. Hala ere, Lurrak hurbileko objektuengan eragiten duen grabitate erakarpen indarra finkatuta, gure planetan pisua horixe litzatekeela kalkulatu da, estimazioz, formula matematiko konplexuak erabiliz.





Kilo bat ezti egiteko erle bakar batek 4 milioi lore bisitatu behar ditu. Munduari lau bira ematea adina distantzia.



Sagarrek airea dute barrenean, % 25 airea dira. Egizue proba. Sartu sagar bat urez betetako ontzi batean eta ikusiko duzuen moduan flotatu egiten du.



Lehendabiziko burkoak harrizkoak ziren, bai, bai, ondo entzun duzue. Mesopotamian sortu ziren lehenengo burkoak, harrizkoak ziren eta euren funtzioa zen lotan zeuden bitartean sudurra, ahoa eta belarriak zomorrotatik babestea.



Lehenengo iratzargailuak pertsonak izan ziren! “Knocker up” deitzen zitzairen eta euren zeregina langileak esnatzea zen, lanera garaiz ailegatu zitezen.



Pertsona batek hilabete iraun dezake ezer jan gabe, baina zazpi egun besterik ez urik edan gabe.



Egunean 8 ordu egiten baduzu lo, 99 urte dituzunean 33 pasa izango dituzu lo.



Munduko lekurik hotzena Antartika da. Neguan -73° -ra irits daitezke termometroak!



Gizakiak etxekotu zuen lehenengo animalia elur-oreina izan zen, orain dela 14 mila urte.



Lur planetak 6 mila milioi tona pisatzen du. Elefante batek 5 tona pisatzen badu, pentsa...



sukal-saltsan

Flana gereziekin

Gereziekin errezeta goxoa eta erraza proposatzen dizuegu. Sei lagunentzako flan errezeta da. Ordu laurdenean prestatzen da eta beste 45 minutu beharko ditu labean.



Nola egin:

- 1.- Prestatu moldearen gurinarekin eta irinarekin. Egosi esnea eta esnegaina. Banilla gehitu.
- 2.- Beste edukiontzi batean gorringoak, azukrea eta maizena nahastu. Esnearekin prestatu dugun nahasketa gainera botatu. Nahastu gogoz eta sutan jarri irakin arte. Utzi irakiten 30 bat segundotan.
- 3.- Nahasketa guztia aurretik prestatutako moldera botatu. Gainera koilara batekin berdindu eta izoztutako gereziak gainera botatu.
- 4.- Flana labean sartu, 180 gradutan eta 35 minutuz. Flanaren gaineko aldeak gorritu egin behar du pixka bat. Labetik atera eta hozten utzi.

OSAGIAK :

- 5 arrautza gorringo.
- 50 zl esne.
- 80 g maizena.
- 25 zl esnegaina postretarako.
- 110 g azukre.
- Banila poltsatxo bat.
- 150 g gerezi izoztu.





Kalabaza tarta

Ordu erdi nahikoa izango dugu kalabaza tarta eder bat prestatzeko. Gero, 40 minutu beharko ditugu labean. Goxo goxoa irtengo zaizue!

Nola egin:

- 1.- Kalabaza zuritu, garbitu eta zatitu. Gero, egosten jarri hogei bat minutuz. Kalabaza okela erraz zeharkatu behar du aizto batek.
- 2.- Labea 210 gradutara berotu. Bitartean, egin purea kalabazarekin.
- 3.- Hostopila zabaldu eta sardexkarekin zulatu.
- 4.- Arrautzak eta azukrea nahastu pasta zuri eta harroa lortu arte. Maizena gehitu lehenengo eta esne-gaina gero. Azkenik, kalabaza gehitu.
- 5.- Moldea prestatu eta masa hostopilaren gainera bota. Guztia labean sartu 35-40 bat minutuz (210 gradu).
- 6.- Hozten utzi jan aurretik. On egin!

OSAGAIAK:

- Hostopila (400 g)
- Intxaur zatiak
- Azukre hautsa (150 g)
- Esne-gaina (25 zl.)
- Koilara txiki bat kanela
- Kalabaza (400 g)
- Arrautzak (3)
- Maizena (30 g)
- Banilla-landarea duen azukrea (sobre bat)



Zertan aldatu dizu bizitza COVID-19ak? Zeren falta igartzen duzu?



IZAR OSORO

Orain ezin ditugu lehen egiten genituen gauza asko egin: gauzak ikutu, lagunekin nahi duguna egin... Azkenean, bizitza normala egitea. Zeren falta igartzen dudan gehien? Nahi dudan guztia ikutzea, lagun artean eta familian nahi dugunean elkar besarkatzea, zinean eta txutxedendetan lehen moduan ibiltzea... Musukoa eta eskuak etengabe garbitzea nahiko astuna egiten zait.



NORA NAVAJAS

Gauza askotan aldatu dit bizitza COVID-19ak. Orain kalean oso erne ibiltzen naiz, ia zer ikutu daitekeen eta zer ez. Egia da batzuetan ahaztu egiten zaidala gertatzen ari dena, baina gero eta arduratsuagoa naiz. Musukoa kentzeko gogoa daukat. Gauza askoren falta igartzen dut, besarkadak ematea, adibidez. Baina horrela bizitzen ikasi beharko dugu.



SIMONE OJANGUREN

Gauza askotan aldatu zait bizitza: musukoa kendu gabe ibiltzea, distantzia zaindu behar izatea... Zaila da. Kontaktu fisikoaren falta igartzen du, ingurukoak beldur gabe ikutzea nahiko nuke, eta musukoa apur bat kendu ahal izatea.



OIHANE DE LA VIUDA

Askotan aldatu dit bizitza. Musukoarekin ezin du ondo arnastu eta bero egiten duenean jasangaitza da. Eskolan ezin gara gelak elkartu eta ezin dugu lehen bezala jokatu, ez futboleant, ez saskibaloian... Igartzen dudana hutsunerik handiena da lagunekin ezin dudala lehen bezala jolastu eta ezin dugula elkar besarkatu.



ANDER GONZALEZ

Lehen eskolan lagunekin jolastean nuen eta elkar besarkatzen ginen, eta orain ezin dugu horrelakorik egin. Eskolan ez nago lasai, kutsatzeko beldurrez nago. Igartzen dudana faltarik handiena da pinturara eta robotikara ezin naizela jolatu, eta aitatxok oheratzerakoan ez dizkidala lehen bezain beste musu ematen. Orain elkar zaindu behar dugu.



ANER TERUEL

Bizitza aldatu zaigu denoi; lehen egiten genituen ekintza batzuk ezin ditugu egin orain, adibidez baserri batera joan, etxetik kanpo lo egin... Nik lagunekin trankil-trankil jolastea nahi nuke, lehen egiten genuen bezala, eta etxeak beldur gabe besarkatzea.



6 urtetik aurrera

Izan zu zeu, Kosme

Kosme ez da beste untxiak bezalakoa. Hala ere, besteen modukoa izaten saiatzen da eta, beste guztiek bezala, berak ere azenarioekin amets egiten duela dio. Azenario handi eta laranjekin. Benetan? Kosmek? Zorionez, Kosme ezberdina izaten ausartuko da, erritmoz eta alaitasunez. Ez dago norbera den modukoa izatea baino gauza hobetik! Laster, gainerako untxiak ere ohartuko dira berezko ametsak dituztela.



Katta ametsetan

Udaberriarekin batera, basoa kolore berriz jantzi da. Neguko lozorrotik irtenda, Katta, inguruak miatzeko gogoz, zuhaitzera igo da. Ia iritsi da zeruraino. Amets batean bezala egingo du bidaia eta, etxera itzultzean, udaberriak hasiera berri baten zantzuak ekarri dizkiola konturatuko da. Basoa aldatuta dago udaberria heldu delako. Kattak zuhaitzean gora egin du, zeruraino. Zer ikusiko ote du handik?



8 urtetik aurrera

Besarkada bat, beharbada

Arazoak bata bestearen atzetik pilatu zaizkio Eleneri, eta, gainera, urtebetetze-eguna zapuztu dio lagun batek. Zer egin? Amari betiko besarkatuta egon nahiko luke, eta halaxe gertzea eskatuko du kandelak itzaltzeko unean. Arranopola! Nola jakin desioa bete egingo zela? Amari kateatuta dago geroztik, pega-pega eginda daude biak, eta hala egotea ez da hasieran zirudien ezain polita. Ala bai? Kontuz desioekin, bete egin daitezke eta!



Joemak eta polasak

Ume listoentzat edo heldu tontoentzako poema liburua da hau. Iñigo Astiz idazleak eta Maite Mutuberriak jolasean eginikoa, poemaz eta ilustrazioez osatua. Jostaria eta umoretsua ez ezik, iradokitzailea eta sortzailea. Ondo pasatu eta hitzen eta ilustrazioen indar iradokitzaileaz gozatzeko.



10 urtetik aurrera


Zuhaitza

Unai ia beti ohean gaixorik dago. Egun batean, bizilagun misterioitsu bat, Ludoviko agurea, auzora bizitzera etorri dela ikusi du ohe ondoko leihotik. Haren lagun egin ondore, Ludovikok mundu berri bateko giltza emango dio: "esperanto" izeneko nazioarteko hizkuntza. Unai esperantoaren bidez Tanzaniako Jua mutiko elbarria ezagutu ondoren, bien sendabidea izango omen den zuhaitzaren bila abiatuko dira.



Etxetxorotarrak

Lea eta Mattin neba-arrebak aspaldi konturatu ziren familia bitxia osatzen dutela. Aitari sukaldean aritzea gustatzen zaio, eta etxean beti dago janari usaina; amak, ordea, idaztea eta margotzea atsegin du. Goizetan, aitak opilak egiten dizkie egun onak emateko eta amak bertsoak eta olerkiak kantatzen, eskolan ondo pasa dezaten. Etxetxorotarrak dirudite batzuetan. Baina Lea eta Mattin benetan erotuko dituen gurasoen bat-bateko erabakia izango da.





ipuina

Arreta beharra

Behin maitagarri bat agertu zitzaion bere familiahoen begietan ikusezina zirudien ume bati:

- Zer nahi duzu, txiki? - galdetu zion, eztxiki.
- Gela bat niretzat.
- Zerbait gehiago?
- Bai. Besteek egunero nire gela horretara etorri nahi izatea, ordu betez edo pare bat orduz nirekin egoteko.
- Zerbait gehiago?
- Bai. Hitz egiten diedanean moztu gabe entzutea, arreta osoa eshainiz, eta esaten dudan guztia sinetsiz. Eta nirekin dibertitzea, nahiz eta ezer interesgarririk ez esan
- Zerbait gehiago?
- Bai. Ama eta aita lametik



nehatuta datozenean, edo triste, aspertuta, kezkatuta daudenean, nire ondora etortzea, eta ez orain arte bezala ezikusiarena egitea. Eta nire anai-arrebek nirekin egoteagatik borroka egitea. Hau da, besteek dena uztea egunero nirekin tartetxo bat pasatzeagatik.

Eta tataaaan!, maitagarriak umetxo horren desira guztia batera bete zituen umeatelebista bihurtuta!”





ipuina

Nola sortu ziren itsas zaldiak

Oso aspaldikoa da ipuin hau, itsasan itsasontzirik ibiltzen ez zen garaikoa. Orduan ez zegoen errepiderik, ezta autorik ere. Bada, garai hartan Txuri eta Nabar, bi zaldi gazte, oso pozik bizi ziren zelai berde batean. Egunero joaten ziren aldameneko hondartzara, Amanihablerenera, itsasoko jaunaren aurrean lasterketak egitera, hondarrarekin jolastera. Goiz batean, eguneko ibilaldi, lasterketa eta jolaserako prestatzen ari zirela, bat-batean, txakurren zaunkak eta ehiztarien situak entzun zituzten.

- Txuri, entzun al dituzu oihu eta zaunka horiek? -galdetu zuen Nabarrek urduri.

- Bai, entzun ditut -erantzum zuen Txurik, apur bat kezkatuta.

Begiratu zuten atzera, eta, bai, haiengana zetozen zuzen-zuzenean.

- Geure lila datozela dirudi.

- Lasai, Nabar, ez gaituzte harrapatuko eta. Horiek baino bizkorragoak gara gu -esan zion Txurik lasaitu nahian.

- Goazen ihesi, kanaka hemendik, Txuri!

Eta bi zaldi gazteak haizearen pare abiatu ziren baso eta zelaietan aurrera. Atzera begiratu, eta alde guztietatik agertzen ziren ehiztari eta txakur talde batatik. Aurrera eta aurrera egin arren, ezin ihes eginda zebiltzan eta erabat nekatuta zeuden, ilaje guztia izerdiz busti-



busti eginda. Bat-batean, larrialdian, Amanihable-z gogoratu ziren. Ham egongo zen hura beraien noiz hurbilduko zain, eguneko jolasari ekitiko. Eta liek batera sekulako irrintzi zolia bota zuten.

-Amanihable jauna, salba gaitzazu!

Amanihable jaunak ere entzun zituen aurretik gizakien situak eta txakurren arnasotzak.


Eta konturatu zenean

bi zaldiak estutasunean zeudela, olatu erraldoiak bidali zituen hauen bila. Bi zaldiak, azken ahaleginean, labarrera iritsitako olatu handiaren bizkar gainean aldendu ziren gizakien haserre eta txakurren hortzetatik. Baina ez zeuden uretarako eginak eta laster murgildu ziren urpean. Ene bada! Its behar zuten! Estutasun hartan, berriz jo zuten Amanihablerengana, itsasoko jaunarengana.

-Jauna, salba gaitzazu, itotzen ari gara eta!

Amanihablek bizirik eta zaldi modura irautea nahi zuen. Eskua luzatu eta ez zituen, bada, itsazaldi egin? Eta bere lagunak belarra jatera ohituta zeudenez, inguruko zelaietako belarra, itsasoko alga bihurtu zien. Gizakien beldurrez kostaldeko belardietatik ihes egin zutenetik aurrera, itsas zaldiak alga sailen artean ibiltzen dira itsasos, Amanihableren begia alaitzeko lasterka eta betiko jolasetan arituz.

Frantziako ipuina



zu margolari